

## 2

### Lanaren etekinak

- 2.1 Zer dira lanaren etekinak?
  - 2.1.1 Zein prestazio sartzen dira lan etekinen barruan?
- 2.2 Joan-etorriko dietak eta bidai gastuak lan etekinak al dira?
  - 2.2.1 Arau orokorrak
  - 2.2.2 Arau bereziak
- 2.3 Zer dira eta zer ez dira gauzazko etekinak?
  - 2.3.1 Zer dira gauzazko etekinak?
  - 2.3.2 Zer ez dira gauzazko etekinak?
  - 2.3.3 Nola kalkulatzten da gauzazko etekinen balioa?
  - 2.3.4 Nola integratzen dira zerga oinarrian gauzen bidez jasotzen diren errentak?
- 2.4 Etekin osoa
- 2.5 Zein gastu dira kengarriak?
- 2.6 Zeintzuk dira aplikatzen diren hobariak?
- 2.7 Nola kalkulatzten da etekin garbia?
- 2.8 Nori egozten zaizkio lanaren etekinak?
- 2.9 Noiz egozten dira lanaren etekinak?
- 2.10 Nola baloratzen dira zenbatetsitako etekinak?
- 2.11 Eragiketa lotuak



## 2.1 Zer dira lanaren etekinak?

Lanaren etekintzat hartzen dira besteen kontura egindako lan pertsonaletik edo zergadunaren harreman laboral edo estatutariotik zuzenean edo zeharka eratoritzen diren kontraprestazio eta onura guztiak, diruzkoak nahiz gauzazkoak izan, eta beren izena edo izaera edozein dela ere, baldin eta jarduera ekonomikoen etekinak ez badira.

Garbiago azaltzeko, zehaztu dezagun definizio hori:

- **Kontraprestazio edo ordainsariak** bi eratakoak izan daitezke:
  - Diruzkoak (kopuruak dirutan jasotzen direnean).
  - Gauzazkoak (adibidez: ibilgailu edo etxebizitza bat erabiltzea, merkaturako interes tasatik beherako maileguak lortzea,...)
- Jarduera baten **errentak bi modutara lor daitezke**:
  - Zuzenean (adibidez: soldatak, lansariak, etab.)
  - Zeharka (adibidez: erretiro edo alarguntsa pentsioak, etab.)
- Batik bat **jarduera motaren** arabera definitzen dira errentak, Gizarte Segurantzarekiko afiliazio erregimena edozein dela ere.
  - **Besteen kontura** egindako jardueretatik datozenean, lan etekintzat hartzen dira. Horiekin nola jokatu kapitulu honetan azalduko dugu. Besteen konturako harremana laborala izan daiteke (lan kontratupeko langileak) edo, bestela, estatutarioa (funtzionarioak, etab.).
  - Aldiz, errentak **norberaren kontura** egindako jardueretatik datozenean, jarduera ekonomikoen etekinak izango dira. Kontzeptu hau 5. kapituluaren aztertutako dugu.

Definizioa azaldu eta gero, azter dezagun jarraian zeintzuk diren lan etekinak.

### 2.1.1 Zein prestazio sartzen dira lan etekinen barruan?

- a) **Soldatak** eta **lansariak**, horiek jasotzeko maiztasuna edozein dela ere: egunean, astean, hilean, urtean...
- b) **Langabezia prestazioak** eta **jarduera uzteagatik langile autonomoei emandakoak**.
- c) **Errepresentazio gastuengatik** jasotzen diren ordainsariak, hau da, langileek libreki erabiltzeko jasotzen dituztenak gastu horiek egin direla justifikatu edo ez.
- d) **Bidai gastuetarako dietak** eta **ordainketak**. Dena den, lokomozio gastuak eta ostalaritza establezimenduetan egiten diren mantenu eta egonaldi gastuak hortik kanpo geratzen dira erregelamenduz ezarritako mugen barruan daudenean<sup>16</sup>.
- e) Zerga honetan **salbuetsita ez dauden sari** eta **kalte-ordainak**<sup>17</sup>, zergadunak harreman laboral edo estatutarioen ondorioz lortu dituztenean: erretiro edo jaiotze sariak, lantokia, ordutegia, etab. aldatzeagatik jasotako kalte-ordainak, etab.
- f) **Kargu publikoa dela** eta ordaintzen diren kopuruak, jasotzaileak hauek direnean:
  - Europako Parlamentuko diputatuak.

- Gorte Nagusietako diputatu eta senatariak.
- Eusko Legebiltzarreko kideak edo beste autonomia erkidegoetako legebiltzarkideak.
- Batzar Nagusietako kideak.
- Udal zinegotziak.
- Foru aldundietako edo beste entitate lokaletako kideak.

Lan etekinak dira, baita ere, herri administrazioek goian aipatutako pertsoneri ordaindutako lansari, kalte-ordain, prestazio ekonomiko eta pentsioak, eta goi-karguei nahiz behin-behineko langileei kargugabetzeagatik ordaindutakoak.

**ERNE:** bidai eta joan-etorriko gastuetarako ematen den zatia kopuru horietatik kanpo utzi behar da.

- g) **Funtzionario espainiarrek nazioarteko organismoetan jasotzen dituzten ordainsariak**, nazioarteko hitzarmen eta tratatuetan aurreikusitakoak eragotzi gabe.
- h) Legez onartuta dauden **konfesio erlijiosoetako ministro** edo **apaizek** lortutako kopuruak. Honako hauek daude legez onartuta: Eliza Katolikoa, Espainiako entitate erlijioso ebanjelikoen federazioa, Espainiako komunitate israeldarren federazioa eta Espainiako Komisio Islamiarra.
- i) **Administrazio kontseiluetako** edo horren ordezkari batzordeetako **administratzaile** eta **kideek** eta beste ordezkariak organoetako kideek jasotako ordainsariak.
- j) **Sozietateen sortzaile** edo **sustatzaileek** beren zerbitzu pertsonalen ordainetan berretzat gordetzen dituzten eskubide ekonomiko bereziak.

Eskubide ekonomiko berezi horiek entitateak izan dituen irabazien portzentaje bat badira, balorazioa kapital sozialaren balio baliokidearen %35ekoa izango da gutxienez, beti ere kapital sozial horrek irabazietan ahalbidetzen duen partaidetza aipatu eskubideei aitortzen zaien berbera bada.

- k) **Bekak**, harreman laboral edo estatutario baten ondorioz lortzen direnean.
- l) **Jarduera humanitarioetan** edo asistentzia sozialekoetan laguntzen dutenek jasotako ordainsariak.
- m) Ezkontidearengandik edo izatezko bikote lagunarengandik jasotako **pentsio konpentsagarriak**, izatezko bikotea beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada, eta urteko mantenerako ordainketak.
- n) **Izaera bereziko lan harremanetatik eratorzen diren ordainsariak**. Horrelakoak jasotzen dituzte, esate baterako, goi zuzendaritzakoek, kirolari profesionalek, ikuskizun publikoetan aritzen diren artistek, merkataritzako ordezkariak, zentro berezietan lan egiten duten minusbaliatuek, portuetako zamaketariak, seguritateko langileak, etxeko langileak, presoek, etab. Legez izaera berezia aitortua duen beste edozein lanetatik jasotakoak ere hemen sartzen dira.
- o) Lan etekintzat hartuko dira, baita ere, **babes sozialeko beste sistema publiko zein pribatuetatik** jasotzen diren hurrengo **prestazio** eta **pentsioak**:
  1. **Gizarte Segurantzaren** eta **Klase Pasiboen** erregimen publikoetatik jasotako pentsio eta hartzeko pasiboak, eta ezintasun, jubilatze, istripu, gaixotasun, alarguntsa, zurtasun edo antzekoengatik erakunde publikoek ematen dituzten **gainerako prestazioak**.

<sup>16</sup> Ikus kapitulu honen barruan ageri den 2.2 apartatua, joan-etorriko dietak eta bidai gastuak azaltzen dituenak.

<sup>17</sup> Ikus 1. kapituluaren barruan, "Sarrera" izenekoan, ageri den 1.7 apartatua. Aitortu behar ez diren errentak azaltzen dira bertan.

**ERNE:** jarduera ekonomikoetan ari direnek prestazio edo kopuruak jasotzen badituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateratuak, ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartuak, ezartzen dituen kontzeptuengatik, eta hauek aldi baterako ezintasuna badakarte, prestazio eta kopuru horiek ez dira lan etekinak izango, jarduera ekonomikoen etekinak baizik.

## Adibidea

Demagun iturgina zarela eta lan hori zure kontura egiten dutzula. Jarduera horregatik 13.823,28 euroko sarrerak izan dituzu 2014ko ekitaldian. Gainera, hilabete batzuk gaixo pasa dituzu eta denbora horretan ezin izan duzu lanik egin. Aldi baterako ezintasunagatik 3.005,06 euro jaso dituzu Gizarte Segurantzatik. Bestalde, urte horretan jubilatzea erabaki duzunez, Gizarte Segurantzak 2.404,05 euroko erretiro saria eman dizu.

### Zure sarrerak honako hauek izango dira:

<b>Jarduera ekonomikoaren etekinak</b>	
Sarrerak	13.823,28 €
Aldi baterako ezintasuna	3.005,06 €
<b>Sarrera osoak, guztira</b> (13.823,28 € + 3.005,06 €)	<b>16.828,34 €</b>
<b>Lanaren etekinak</b>	
Erretiro saria	2.404,05 €
<b>Sarrera osoak, guztira</b>	<b>2.404,05 €</b>

- Funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorretatik, umezurtzen eskoletatik eta antzeko beste erakundeetatik onuradun gisa jasotzen diren prestazioak.**
- Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako** bazkide osoek eta haien onuradunek jasotako prestazioak. Honako hauek sartzen dira:
  - Borondatezko edo derrigorrezko bajagatik nahiz BGAEa desegin edo likidatzeagatik jasotako zenbatekoak, salbu eta, bi hilabeteko epea igaro baino lehen, kasu horietan jasotako kopuruak beste BGAE batean osorik sartzen direnean.
  - Gaixotasun larriagatik eta iraupen luzeko langabeziagatik jasotzen direnak.
- Pentsio planen** onuradunek jasotako prestazioak eta **Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EB Arzteztarauan araututako pentsio planetatik** jasotakoak. Barruan sartzen dira gaixotasun larriaren kasuan edo iraupen luzeko langabezi egoeretan modu aurreratuan erabilitako kopuruak.
- Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin** hitzartutako aseguru kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, baldin eta jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko garaian, egindako ekarpenak zati batean gutxienez gastu kengarritzat hartu ahal izan badira edo zerga honen zerga oinarrian murriztu ahal izan badira. Prestazio horiek hauek izan daitezke: erretiro, elbarritasun, alarguntsa eta zurtzasunagatik jasotako prestazioak, eta iraupen luzeko langabeziagatik nahiz gaixotasun larriagatik jasotakoak.

Kontratu horietatik eratortzen diren erretiro edo elbarritasun prestazioak zerga oinarrian integratuko dira, baldin eta jasotako zenbatekoak handiagoak badira

Zergaren foru arauan aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik zergaren zerga oinarrian murriztu edo gutxitu ezin izan diren ekarpenak baino<sup>18</sup>.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak 8.8 artikuluan pentsio planetarako aurreikusten dituen kasuetan baino ezin izango dira erabili<sup>19</sup>.

Kirolari profesionalen eta goi mailako kasuan, jasotzen dituzten prestazioek, eta azaroaren 28ko 35/2006 Legeak<sup>20</sup>, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen, Ez-egoiliarren eta Ondarearen gaineko Zergen legeak zati batean aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zenbakian aipatzen dituen kasuetan eskubide kontsolidatuak hartzeak lanaren etekin gisa tributatu dute oso-osik. Eskubide kontsolidatuak erabiltzen badira azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen, Ez-egoiliarren eta Ondarearen gaineko Zergen legeak zati batean aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zenbakian aipatutakoak ez diren kasuetan, zergaduna behartuta egongo da behar ez bezala egindako murrizketak zerga oinarri orokorrean berrezartzera. Horretarako, autolikidazio osagarriak egin beharko ditu, berandutza interesak ere sartuta. Ekarpeneen zenbatekoa gaitututa jasotzen diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatu dute horiek jasotzen diren zergaldian.

- Enpresen gizarte aurreikuspeneko planen** onuradunek jasotako prestazioak.
- Lanaren etekintzat hartzen dira, halaber, **aseguru kolektiboko kontratuen** onuradunek –enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zerr ikusirik izan gabe– erretiroagatik edo ezintasunagatik jasotzen dituzten prestazioak, betiere enpresek pentsio gaietan hartutako konpromisoen ondorioz izenpetutako kontratuak badira, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak<sup>21</sup> lehen xedapen gehigarrian eta berau garatzen duen araudian jasotakoari jarraikiz, eta prestazio horien zenbatekoak fiskalki egotzitako kontribuzioak eta langileek zuzenean egindako ekarpenak baino handiagoak badira.

Bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen prestazioak kapital moduan jasotzen direnean, eta kontratu horiek aldizkako nahiz aparteko primak dituztenean, lortu den etekin osotik prima bakoitzari zein zati dagokion kalkulatzeko etekin oso hori zatidura honetatik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

Zenbakitzaile gisa, dagokion prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua ordaindutako primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

Izendatzaile gisa, dagokion prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua ordaindutako prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura ( $\Sigma$ ) jarriko da.

18 Baldintza horiek Errenta Zergari buruzko Foru Arauan jasota daude

19 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

20 Mutualisten eskubide kontsolidatuak Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak 8.8 artikuluan aipatzen dituen kasuetan bakarrik gauzatu daitezke, edo bestela, behin urtebete igaro ondoren kirolari profesionalen lan jarduna amaitu edo goi mailako kirolarien izaera galtzen denetik aurrera.

21 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

Etekin osoa X	Prima x ordainketa urte kopurua
	$\Sigma$ (prima x ordainketa urte kopurua)

8. Aurreikuspen plan aseguratuetako partaideek eta haien onuradunek jasotako prestazioak, gaixotasun larriaren kasuan edo iraupen luzeko langabezi egoeretan modu aurreratuan erabilitako kopuruak barne.

9. **Mendekotasun aseguru**en onuradunek jasotako prestazioak, autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legean xedatutakoaren arabera.

Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu gizarte aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak pentsio plan edo fondoan araudian jasota ez dauden kasuetan, borondatezko edo nahitaezko baja kasuetan edo entitatearen desegite edo likidazio kasuetan, behartuta egongo da behar ez bezala egindako murrizketak zerga oinarri orokorrean berrezartzera bidezko diren autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak sartuz. Era berean, ekarpenen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruak, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuak dute horiek jasotzen diren zergaldian.

## 2.2 Joan-etorriko dietak eta bidai gastuak lan etekinak al dira?

### 2.2.1- Arau orokorrak

Bidai gastuetarako dietak eta diru ordainketak lan etekintzat hartzen dira. Aldiz, lokomozio gastuak eta ostalaritza establezimenduetako mantenu eta egonaldikoak ez dira halakotzat hartzen jarraian adierazten diren baldintzak betetzen dituztenean.

#### 2.2.1.1 Garraio gastuetarako diru ordainketak.

Enpresak edo enplegu emaileak ematen dituen diru kopuruak enplegatu edo langileak lantegi, tailer, bulego edo lantokitik kanpo lan egiteagatik dituen garraio gastuak konpentsatzeko direnean, zergapetu gabe geratuko dira honako baldintza eta zenbateko hauetan:

- Enplegatu edo langileak **garraibide publikoak erabiltzen dituztenean**, faktura edo antzeko agiri bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.
- Enplegatu edo langileak **garraibide propioa erabiltzen duenean**, eta joan-etorria benetan egin dela frogatzen denean, honako hauek ez dira aitortu behar:
  - Frogatzen diren bidesari eta aparkamendu gastuak.
  - Egindako kilometro bakoitza 0,29 euroekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

Adierazitako kopuruaren gainetik jasotzen den soberakina bere osoan zergapetzen da eta lan etekintzat hartzen da.

#### 2.2.1.2 Mantenu eta ostatu gastuetarako diru ordainketak.

Enpresak edo enplegu emaileak ematen dituen diru kopuruak jatetxe, hotel eta gainerako ostalaritza establezimenduetan egiten diren mantenu eta egonaldi gastu arruntak konpentsatzeko direnean zergapetu gabe egongo dira baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Gastu horiek jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerritik kanpo sortu behar dira.

- Desplazamendua eta beste udalerrri batean ematen den denbora bederatzita hilabetekoa izango da gehienez modu jarraituan egiten denean. Kanpoan egiten diren aldi baterako egonaldiak ez dute epealdi hori eteten oporregatik, gaixotasunagatik edo destinoz aldatzera behartzen ez duten zirkunstantziengatik gertatzen badira.
- Ordaintzaileak bidaia noiz, nora eta zergatik egin den frogatu behar du.
- Egunean jasotzen diren kopuruak hurrengo taulan adierazten direnak baino handiagoak badira, ez dira mantenu eta ostatu gastu arruntzat hartzen eta, beraz, mugak gainditzen dituen zatia lan etekin bezala aitortuko da.

Ostatu eta mantenuagatik zergapetzen ez diren gehienezko kopuruak		
Ostatu gastuak	Frogatzen den kopurua	
Mantenu gastuak	Estatuan	Atzerrian
-Gaua pasatuz	53,34 €	91,35 €
-Gaua pasatu gabe	26,67 €	48,08 €
-Hegazkinetako langileak gaua pasatu gabe	36,06 €	66,11 €

Hau guztia aplikagarria izango zaie, orobat, lan zentro mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan lan egiteko kontratatzen diren langileei, beti ere desplazamendua langilea bizi ohi den udalerrria ez den beste batera egiten bada.

**Merkantziak errepedez garraiatzeko ibilgailuak gidatzen dituztenen kasuan, ostatu gastuak ez dira frogatu beharko betiere horien eguneko zenbatekoa 15,00 eurotik gorakoa ez bada, lurralde espainiarrean bidaiatuta, edo 25,00 eurotik gorakoa, atzerrira egindako bidaia izanez gero.**

### Adibidea

Demagun Tolosan dagoen enpresa batean egiten duzula lana beste baten kontura. 2014ko urriaren 15ean Valentziara joan zinen lan bidaia bat zela-eta. Bidaia eta ostatu gastuak frogatu eta gero, honako zenbatekoak jaso dituzu enpresatik:

Hegazkinez egindako bidaia	240,40 €
Hoteleko gastuak: 3 gau	901,52 €
2 eguneko mantenu gastuak	120,20 €
Guztira	1.262,12 €

Honako zenbatekoak geldituko dira zergapetu gabe:

Hegazkinez egindako bidaia	240,40 €
Hoteleko gastuak: 3 gau	901,52 €
Mantenu gastuak: 2 egun x 53,34 €	106,68 €
Guztira	1.248,60 €

Bidaiagatik jaso duzun kopurua ez da lan sarreratzat hartzen, bidaia garraio publiko batean egin delako eta behar den eran frogatu delako. Ostatu gastuengatik jasotako zenbatekoarekin ere gauza bera gertatzen da, gastu horien zenbatekoa behar bezala frogatu delako hotelak luzatutako fakturaren bidez.

Mantenu gastuak direla-eta jasotako kopurutik 106,68 euroko zenbatekoa ez da lan sarreratzat hartzen. Kalkulu hori egun kopurua (bi) 53,34rekin biderkatuz egin da (hau baita eguneko muga frogagiririk aurkeztu behar ez denean, gaua jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerritik kanpo pasatzen denean, eta bidaia lurralde espainiarraren barruan egiten denean).

Jasotako zenbatekoa	1.262,12 €
Zergapetu gabeko zenbatekoa	1.248,60 €
Diferentzia	13,52 €

Jasotako zenbatekoaren eta zergapetu gabeko zenbatekoaren arteko **diferentzia**, hau da, 13,52 euro, lan etekintzat hartzen da, eta zerga ordaindu beharko da harengatik. Ordaintzaileak bidaia noiz, nora eta zergatik egin den frogatu beharko du.

### 2.2.1.3. Zer egiten da langileak atzerrian destinaturik daudenean?

- **Espainiako funtzionario publikoak atzerrian destinaturik daudenean:** indarrean dagoen legeria aplikatuta eta maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuak 25. artikuluaen 1 eta 2 apartatueta jasotako kalte-ordainaren ondorioz, Espainian destinaturik baleude lortuko litzuketek ordainsari guztien gainean jasotako diferentzia ez da zergapetuko.
- **Herri Administrazioiko langileak atzerrian destinaturik daudenean:** Espainian destinaturik baleude soldata, hirurteko, osagarri edo pizgarriengatik lortuko litzuketek ordainsari guztien gainean jasotako diferentzia geratzen da zergapetu gabe. Ondorio horietarako, lansarien arloan esku duen organoak erabakiko du nola berdindu daitezkeen langile horien soldatak Espainian destinaturik baleude.
- **Beste herri administrazioetako funtzionario eta langileak** (Euskal Herriko Administrazio Publikoak atzerriko delegazioetan dituenak barne): jasotzen duten diferentzia ez da zergapetzen baldin eta bere zenbatekoa urtarrilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuak, atzerrian destinaturik dauden funtzionarioen soldata erregimena arautzekoak, 4., 5. eta 6. artikuluetan aipatutako helburuetarako erabiltzen bada edo, bestela, soldata berdinketak gainditzen ez baditu.
- **Enpresetako enplegatuek atzerrian destinaturik daudenean:** soldata, egunsari, antzintasun edo aparteko ordainsariengatik, irabazietatik datorrena barne, familia laguntzagatik, edo beste edozein kontzeptuengatik, hala nola, kargu, enplegu, kategoria edo lanbideagatik, Espainian destinaturik baleude lortuko litzuketek ordainsarien gainean jasotako diferentzia zergapetu gabe geratuko da.

Lau apartatu hauetan ezin da aplikatu atzerrian egindako lanetatik datozen etekinei aplikatzen zaien salbuespena<sup>22</sup>.

## 2.2.2 Arau bereziak

Arau bereziak aplikatzen dira honako kasuetan:

- Zergadunek menpeko lan harreman bereziak dituztenean.
- Lantokiz aldatzen direnean.
- Hauteskunde mahaietako kideak direnean.

### 2.2.2.1 Menpeko lan harreman bereziak dituzten zergadunak

Enpresak ez badizkio langileari itzultzen lokomozio eta mantenuagatik izandako gastuak, langileak hurrengo zenbatekoak gutxitu ditzake bere sarreretatik etekin garbia kalkulatzeko, bidaia benetan egin dela frogatzen badu beti ere:

#### a) Garraio gastuengatik:

- **Garraio bide publiko erabiltzen duenean:** faktura edo antzeko agiri bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.
  - **Bestelako kasuetan:** 0,29 euro kilometro bakoitzeko, gehi frogatzen diren bidesari eta aparkamendu gastuak.
- #### b) Mantenu gastuengatik:
- **Lurralde espainiarraren barruan:** 26,67 euro eguneko.
  - **Atzerrian:** 48,08 euro eguneko.
- #### c) Ostatu gastuengatik:
- hauek gutxitu ahal izan daitezke, ezinbestekoa da enpresak aurretik itzultzea. Arau orokorren arabera jokatu da<sup>23</sup>.

## Adibidea

Demagun 2014ko ekainaren lehen Gipuzkoako enpresa batek merkataritzako ordezkari modura kontratatu zaituela menpeko lan harreman berezi bat dela medio. Garraio eta mantenu gastuak zure kontura doaz eta enpresak ez dizkizu espezifikoki itzuli. Bizkaia eta Nafarroa dituzu lan eremu, eta bertara joateko zeure ibilgailua erabili duzu.

2014an 33.055,67 euro gordin jaso dituzu zure zerbitzuen ondorez, eta ondoko bidaiak egin dituzu, denak ere behar bezala frogatu dituzunak.

Egindako kilometroak	20.000 km
Bidai egunak, gaua kanpoan pasatuaz	12 egun
Bidai egunak, gaua kanpoan pasatu gabe	100 egun
<b>Bidai egunak, guztira</b>	<b>112 egun</b>

Bidaia horien ondorioz, honako gastuak frogatu dituzu:

Bidesari eta aparkamendu gastuak	120,20 €.
----------------------------------	-----------

Zergapetzen ez diren gastuak zeintzuk diren jakiteko, honela egingo dugu:

Garraio gastuak (20.000 km x 0,29€)	5.800,00 €
Frogatu diren bidesari eta aparkamendu gastuak	120,20 €
Mantenu gastuak (26,67 € x 112 egun)	2.987,04 €
Zergapetu gabeko sarrerak, guztira	8.907,24 €

Fiskalki konputa daitezkeen sarrerak zeintzuk diren jakiteko, sarrera gordinetatik guztira salbuesten diren sarrerak kenduko ditugu:

Lanaren etekin gordinak	+33.055,67 €
Salbuestitako sarrerak, guztira	-8.907,24 €
Zergapetzen diren sarrerak	24.148,43 €

<sup>22</sup> Ikus 1. kapituluaren barruan, "Sarrera" izenekoa, ageri den 1.7 apartatua. Aitortu behar ez diren errentak azaltzen dira bertan.

<sup>23</sup> Ikus apartatu honen barruan ageri den 2.2.1.2 puntua, "Mantenu eta ostatu gastuetarako diru ordainketak" azaltzen dituena.



### 2.2.2.2 Lantokiz aldatzea

Lantokia beste udalerrri batera aldatzeagatik ordaintzen diren kopuruak **zergapetu gabe geratuko dira** baldin eta aldaketa horrek bizilekuz aldatzera ere behartzen badu. Zenbateko horiek honako hauek izango dira soil-soilik:

- Zergadunaren eta bere familiaren lokomozio eta mantenu gastuak, aldaketak dirauen bitartean.
- Altzariak eta etxeko tresnak tokiz aldatzeko gastuak.

## Adibidea

2014ko azaroan, zure enpresak beste udalerrri batera aldatu zuen zure lanpostua. Aldaketa horrek bizilekuz aldatzera behartu zintuenez, 3.005,06 euroko konpentsazioa jaso zenuen. Bidaia zure ibilgailuan egin zenuen, kanpoan lo egin behar izan gabe.

Honako frogagiriak daukazuzu:

Mudantza enpresaren faktura	1.202,02 €
Egindako kilometroak	600 km

Honako zenbatekoak geratzen dira zergatik salbuetsita:

Lokomozio gastuak: 600 km x 0,29 €	174,00 €
Mantenu gastuak, gaua eman gabe	26,67 €
Etxe aldaketa faktura	1.202,02 €
<b>Salbuesten diren sarrerak, guztira</b>	<b>1.402,69 €</b>

Aitortu behar diren sarrerak zeintzuk diren jakiteko, jasotako zenbatekotik guztira salbuesten diren sarrerak kenduko ditugu:

Jasotako zenbatekoa	+3.005,06 €
Gastuak guztira	- 1.402,69 €
<b>Zergapetzen diren sarrerak*</b>	<b>1.602,37 €</b>

\*Kopuru horren %50 lan etekin moduan sartuko da zerga oinarri orokorrean, etekin hori denboran zehar era irregular nabarmenean lortu dela jotzen delako (*ikus 2.4 apartatua*).

### 2.2.2.3 Hauteskunde mahaietako kideak

Hauteskunde mahaietako kideek jasotzen dituzten zenbatekoak legeria aplikagarriaren arabera salbuetsiko dira Zergatik.

## 2.3 Zer dira eta zer ez dira gauzako etekinak?

### 2.3.1 Zer dira gauzako etekinak?

Gauzen bidezko etekintzat jotzen dira ondasunak, eskubiak edo zerbitzuak dohainik edo merkatuko ohiko prezioetik behera nor bere xedeetarako erabili, kontsumitu edo lortzea, nahiz eta ematen dituenarentzat gastu erreala ez izan.

**ERNE:** etekinak ordaintzen dituenak eskudirutan ematen ditzkionean zenbatekoak zergadunari honek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, diruzko etekintzat hartuko dira.

Bereziki, honako hauek dira gauzen bidezko lan etekinak:

- Borondatzeko gizarte aurreikuspeneko entitateen** bazkide babesleek egindako ekarpenak.
- Pentsio planen** sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak eta, orobat, Europako Parlamentuak eta bertako

Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoan jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EB Artezatarauan aurreikusitako enpresa sustatzaileek egindakoak.

- Enpresariak **pentsio konpromisoei** aurre egiteko ordaindutako zenbatekoak, beti ere ordainketa horiek prestazioak jasoko dituzten pertsonari egotzen zaizkionean. Konpromiso horiek Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak lehen xedapen gehigarrian eta lege hori garatzen duen araudian jasotakoaren arabera hartu behar dira<sup>24</sup>. Alabaina, zenbateko horiek ez bazaizkie langileei egotzen, ez da gauzen bidezko ordainketa izango.

Enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zer ikusirik ez duten aseguru kolektiboko kontratuetan borondatzeko izango da egozpen fiskal hori, baina ordaindutako gainerako primei buruz hartzen den erabakia aseguru kontratua amaitu arte mantendu beharko da. Dena den, arrisku aseguru kontratuetan derrigorrezkoa izango da egozpen fiskala egitea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 17. artikulua 2. apartatuko f) letran xedatutakoa eragotzi gabe. Aseguru kontratuetan aldi berean erretiroa eta heriotza edo lanerako ezintasuna estaltzen direnean, egozpen fiskala ez da inolaz ere nahitaezkoa izango.

- Etxebizitza erabiltzea** karguren bat betetzeagatik edo enplegatu publiko nahiz pribatua izateagatik.
- Ibilgailuak** erabiltzea edo ematea.
- Merkatuko **interes tasatik behera emandako maileguak**.

**ERNE:** 1992ko urtarrilaren 1a baino lehen diruaren legezko interes tasatik behera hitzartu diren maileguak ez dira gauzen bidezko ordainketa hartuko mailegu-hartzaileak data hori baino lehen jaso badu haien zenbateko nagusia.

- Mantenu, ostatu, turismo bidaia eta antzekoengatik** emandako prestazioak.
- Aseguru** edo antzeko beste **kontratuengatik** enpresak ordaindu dituen primak edo kuotak.

**ERNE:** kanpoan geratzen dira lan istripuen aseguruengatik edo lan jardueratik eratorritako erantzukizun zibileko aseguruengatik ordaindutakoak, eta, orobat, arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuengatik ordaindutako primak, heriotza edo elbarritasun kasuetarako direnean, 500 euro arte.

- Zergadunaren, ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren **mantenu eta ikasketa gastuak**, nahiz ahaidetasun harreman batengatik harekin lotuta dauden pertsonenak (ezkon-ahaidenak edo izatezko bikoteak ekar ditzakeen bestelakoena) ordaintzeko zuzendutako kopuruak.

**ERNE:** langileak egunean jarri, gaitu edo birziklatzera zuzendutako kopuruak hortik kanpo geratzen dira, prestakuntza hori beren jardueraren garapenagatik edo lanpostuen ezaugarriengatik beharrezkoa denean.

### 2.3.2 Zer ez dira gauzako etekinak?

Jarraian aipatzen diren kontzeptuak ez dira gauzen bidezko etekintzat hartzen eta, beraz, ez dira aitortu behar:

24 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen..

- a) Enpresako kantina edo jantokietan nahiz izaera sozialeko ekonomatoetan **prezio beheratuan produktuak ematea**.
- b) Aktiboan dauden langileei enpresaren beraren akzioak edo partaidetzak ematea, baldin eta emate hori 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen egin bada, eta langile bakoitzari emandakoa ez bada urtean 3.500,00 eurotik gorakoa.
- c) **Ikasketak eta prestakuntza ikastaroak egiteko gastuak**, hurrengo 2.3.2.4. apartatuan aipatzen diren baldintzak betetzen dituztenean.
- d) **Langileak teknologia berrietan trebatzeko erabilitako kopuruak**.
- e) Langileen **gizarte eta kultur zerbitzuetara zuzendutako ondasunak** erabiltzea.
- f) Lan jardueratik eratorritako **lan istripu edo erantzukizun zibileko aseguru kontratuen** ondorioz enpresak ordaintzen dituen primak edo kuotak.
- g) **1992ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzarturiko maileguak**, baldin eta mailegu-hartzaileak data hori baino lehen jaso badu zenbateko nagusia.
- h) **Arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuengatik** ordaindutako primak, **heriotza edo elbarritasun kasuetarako direnean, betiere, 500 euro arte..**

### 2.3.2.1 Prezio beheratua duten produktuak.

Enpresako kantina eta jantokietan nahiz izaera sozialeko ekonomatoetan prezio beheratuan ematen diren produktuak ez dira zergapetuko. Zerbitzua zuzenean nahiz zeharka prestatzeko erabiltzen diren formulak izango dute tratamendu hau, beti ere lan legerian onartuta badaude eta ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- Zerbitzuaren prestazioa enplegatu edo langilearen lanegunetan egitea.
- Zerbitzuaren prestazioa ez egitea enplegatu edo langileak zergapetu gabeko mantenu dietak lortzen dituen egunetan.

Zerbitzuaren prestazioa zeharkako formulen bidez egiten direnean, aurreko apartatuan exijitzen diren baldintzez gainera, honako hauek ere bete beharko dira:

- Zenbatekoa ezingo da egunean 9 eurotik gorakoa izan. Handiagoa bada, diferentzia gauzen bidezko ordainketa izango da.
- Enplegatu edo langileari zerbitzua emateko janari-txartelak edo antzeko agiriak ematen bazaizkio, ondoko baldintzak bete behar dituzte:
  - a) Numeratuak izan behar dute.
  - b) Modu nominatiboz egingo dira, hau da, bertan jasotzailearen izena agertuko da.
  - c) Zenbateko nominala adieraziko dute.
  - d) Enpresa emaila agertuko da.
  - e) Transferiezinak izango dira, hau da, bertan ageri den jasotzaileari bakarrik transferituko zaizkio.
  - f) Zenbatekoa ezingo da ez enpresatik ez hirugarren batengandik berreskuratu.
  - g) Ostalaritza establezimenduetan baino ezingo dira erabili.

- h) Txartelak ematen dituen enpresak enplegatu edo langile bakoitzari emandako agiriaren zerrrenda bat eraman eta gorde beharko du.
- i) Zerrrenda horretan agiriaren zenbakia eta emate eguna adieraziko dira.

### 2.3.2.2 Langileak teknologia berrien erabileran trebatzeko gastuak

Langileak teknologia berrietan trebatzeko erabiltzen diren kopuruak dira. Honela laburbildu daitezke: interneteko konexioa egin, erraztu edo finantzatzeko gastuak, eta interneten sartzeko behar diren ekipoak eta terminalak (software eta periferikoak barne) dohainik edo prezio beheratuekin erostegatik nahiz maileguak edo diru laguntzak jasotzeagatik sortutako gastuak, baita langileek lantokiz eta ordutegiz kanpo erabili ahal dituztenean ere.

### 2.3.2.3 Ikasketen edo prestakuntza ikastaroen gastuak

Erakundeek, enpresek edo enplegu-emaleek beren langileak eguneratu, gaitu eta birziklatzeko agindu eta finantzatzen dituzten ikasketen edo prestakuntza ikastaroen gastuak ez dira zergapeturik egongo.

Beharrezkoak izan behar dute jarduerak edo lanpostuen ezauzgarriak garatzeko, baita beste pertsona edo entitate espezializatuek ematen dituztenean ere.

Lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako ematen diren diru kopuruak kapitulu honetako 2.2 puntuan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

### 2.3.2.4 Gizarte eta kultur zerbitzuetara zuzendutako ondasunak

Langileen gizarte eta kultur zerbitzuetara zuzendutako ondasunak erabiltzea ez da gauzen bidezko ordainketatzat hartzen. Besteak beste, honako hauek hartuko dira halakotzat: enpresek edo enplegu-emaleek langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko eskura jartzen dituzten espazio eta lokalak, herri administrazio eskudunak behar bezala homologatuak beti, zerbitzu hori behar bezala baimendutako hirugarrenekin emateko egindako kontratazioa, edo zerbitzu hori eskaintzeko zeharkako formulak euren urteko zenbatekoa 1.000 eurotik gorakoa ez bada.

Ezin da inolako diskriminaziorik edo indibidualizaziorik egin langile batzuen alde (hau da, ezin da zerbait eman pertsona bakar batek erabil dezan).

### 2.3.2.5 Arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuengatik ordaindutako primak, heriotza edo elbarritasun kasuetarako direnean

Heriotza edo elbarritasun kasuetan, arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuengatik ordaindutako primak ez dira gauza bidezko ordainketatzat hartzen 500,00 euroraino.

### 2.3.3 Nola kalkulatu da gauzako etekin baliua?

Gauzen bidez jasotzen diren etekinak merkatuan duten ohiko balioaren arabera baloratuko dira oro har. Dena den, ondorengo kasuetan arau berezi jakin batzuk aplikatuko dira:



- a) **Etxebizitza erabiltzea:** etxebizitza kargua dela-eta edo enplegatu publiko nahiz pribatua izateagatik erabiltzen bada, balorazioa egingo da bai enplegu-emailea etxearen jabea denean eta bai alokairu bat ordaintzen duenean etxea langilearen esku jartzeko.

Balorazioa ondasun higiezinak duen balio katastralaren % 4koa izango da. Zergaren sortzapen egunean ondasun higiezinak ez badu balio katastralik edo titularrari jakinarazi ez bazaio, haren ordeztu, Aberastasu-naren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren ondo-riotarako kontuan hartu beharreko balioaren %50 konputatuko da.

Etxebizitza alokatuta badago, balorazioa ordaintzailearentzat dakarren kostua izango da, tributuak eta gastuak barne, baina balorazio hori ezingo da izan inoiz etxebizitzaren balio katastralaren % 4 baino txikiagoa. Eta ordaintzaileak erabilera gastuak ordaintzen baditu (ura, gasa, argindarra, etab...), gastu horiek dakarkio-ten kostuaren arabera baloratuko da.

## Adibidea

Zure soldata osoa 27.045,54 eurokoa izan da. Gipuzkoan bizi zara, etxebizitza berri batean. Enpresa da haren jabea, eta 120.202,42 euroko balio katastrala du.

Etxebizitzaren katastro balioa	120.202,42 €
Etxebizitzaren balorazioa (katastro balioaren %2)	2.404,04 €
Soldata osoa	27.045,54 €
<b>Balorazioaren muga (soldata osoaren %10)</b>	<b>2.704,55 €</b>

- b) Ibilgailuak erabili edo ematea:
- Ibilgailua **erabilera partikularrerako bakarrik** erabiltzen denean, hauxe izango da balorazioa:
    - **Ematen bada**, ibilgailua erostean ordaintzaileak izan duen kostua, eragiketa kargatzen dituzten zergak barne.
    - **Erabiltzen bada**, erosketan ordaindu den kostuaren %20 urtean, eragiketa kargatzen duten zergak barne. Ordaintzailea ez bada ibilgailuaren jabea, aipaturiko portzentajea ibilgailua berria izango balitz merkatuan izango lukeen balioari aplikatuko zaio.
    - **Erabili ondoren ematen bada**, aurreko erabilaren ondorioz ateratzen den balorazioa kontuan hartuz kalkulatu da balorazioa.
  - Ibilgailua **lanerako zein helburu partikularretarako** erabiltzen denean, aurreko araua aplikatetik ateratzen den emaitzaren erdia izango da balorazioa (%10).

## Adibidea

Demagun 21.035,42 euro kobratzen dituzula urtean. 3 urtez, enpresak ibilgailu bat utzi dizu zure erabilera partikularrerako. Ibilgailuaren erosketagatik enpresak 30.050,61 euroko kostua izan du. Hiru urte horiek igaro ondoren, zuri eman dizute ibilgailua.

- Ibilgailua erabili duzun ekitaldiak:
 

Lehen hiru ekitaldietan jasoko duzun ordainketa 6.010,12 eurokoa izango da (30.050,61 euroren %20). Zenbateko hori diruzko ordainketei gehitu beharko diezu.

Soldata	21.035,42 €
Gauzako ordainketa ibilgailua erabiltzeagatik (ibilgailuaren erosketa prezioaren %20)	6.010,12 €
<b>Etekin osoa (21.035,42 € + 6.010,12 €)</b>	<b>27.045,54 €</b>

- Ibilgailua ematen dizuten ekitaldia:
 

Ibilgailua eman dizuten urtean, gauzako ordainketa- ren balioa kalkulatzeko kenketa hau egin beharko da: ibilgailuaren erosketa prezioa (30.050,61 €) ken ibilgailua erabiltzeagatik lehen hiru urteetan egotzitakoa (6.010,12 € x 3 = 18.030,36 €).

Soldata	21.035,42 €
Gauzako ordainketa ibilgailua emateagatik (30.050,61 € - 18.030,36 €)	12.020,25 €
<b>Etekin osoa (21.035,42 € + 12.020,25 €)</b>	<b>33.055,67 €</b>

- c) **Diruaren legezko interes tasatik behera emandako maileguak:** ordaindu den interesaren eta indarrean dagoen legezko interesaren arteko diferentzia izango da balorazioa. Gauzako ordainketa baloratze-ko, diruaren legezko interesaren aldaketa hartu behar-ko da kontuan.

SALBUESPEN gisa, esan behar da 1992ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako maileguak ez direla gauzako ordainketa hartzen maileguaren zenbateko nagusia egun hori baino lehen jaso denean.

- d) Ondorengo errentak ordaintzailearentzat izan duten kostuaren arabera baloratuko dira, eragiketa bakoitza kargatzen duten zergak barne:
- **Mantenu, ostatu, turismo bidaia eta antzekoengatik** emandako prestazioak.
  - **Aseguru** eta antzeko **kontratuengatik** ordaindutako primak edo kuotak.
  - Zergadunaren **ikasketa eta mantenu gastuak**, edo ahaidetasun harreman batengatik harekin lotuta dauden beste pertsona batzuenak, ezkon-ahaideenak barne, ordaintzeko zuzendutako kopuruak. Alabaina, ez dira gauzako ordainketa hartuko baldin eta zergadunaren ikasketak langileak egunean jarri, gaitu edo birziklatzeko egiten badira edota beren jarduerak edo lanpostuaren ezaugarriak garatzeko beharrezkoak badira.
- e) Honako hauek beren zenbatekoaren arabera baloratu-ko dira:
- **Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen** bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak.
  - **Pentsio planen** sustatzaileek egindako ekarpenak.
  - Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoen jar- duerei eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EB Arteztarauan aurreikusitako **enpresa sustatzaileek** ordaindutako kontribuzioak.
  - Enpresariak **pentsio konpromiso**ei aurre egiteko ordaindutako zenbatekoak, betiere ordainketa horiek prestazioak jasotzen dituzten pertsonen egozten zaiz-kienean. Konpromiso horiek Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak lehen xedapen

gehigarri eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera hartu behar dira<sup>25</sup>.

- Era berean, mendekotasun aseguruie enpresaburuek ordaindutako diru kopuruen zenbatekoa.
- f) Aurreko letretan jasotakoa jasota ere, lan etekina dakarten jarduerak egitea ohiko jarduera duten enpresek ordaintzen dutenean, balorazioa ezingo da txikiagoa izan dena delako ondasun, eskubide edo zerbitzu horrek jendearentzat duen prezioa baino.

Jendeari eskainitako prezioetat hartuko da abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartzen duenak, aurreikusitakoa, deskontu arruntak edo ohikoak kenduta. Deskontu arrunt edo ohikotzat hartuko dira enpresako langileen pareko diren beste gizatalde batzuei eskaintzen zaizkienak eta, orobat, promozio deskontu orokorrak izanik gauza bidezko ordainketa egiteko unean indarrean daudenak edo, beste edozein kasutan, % 15eko portzentajea edo urtean 1.000 euroko kopurua gainditzen ez dutenak.

### 2.3.4 Nola integratzen dira gauzako etekinak zerga oinarrian?

Jasotzaile berberari diruz eta gauzen bidez ordaintzen zaizkionean lan errentak, atxikipena ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da. Horrelakoetan, atxikipenaren portzentajea aurreikus daitezkeen diruzko nahiz gauzen bidezko ordainsari finko nahiz aldakorrek kontuan hartuz kalkulatu da.

Diruz nahiz gauzen bidez ematen diren ordainsarien zenbatekoa urtean zehar aldatzen denean, beste portzentaje bat kalkulatu da izandako aldaketak kontuan hartuz. Portzentaje berria aipatu aldaketak gertatzen diren egunetik aurrera aplikatu da bakar-bakarrik.

Aipatu den portzentajea ordaindutako kontraprestazio eta onura guztiei aplikatuz ateratzen den zenbatekoa ordaindutako diruzko etekinetatik kenduko da.

## 2.4 Etekin osoa

### Etekinen zein portzentaje aitortu behar da?

Izaera orokorrean, lanaren etekin osoak 2.1. apartatuan zehazten direnak dira.

Hala eta guztiz ere, ondorengo kasuetan, lanaren etekin osoa kalkulatzeko, etekin horien zenbateko osoari portzentaje jakin batzuk aplikatu zaizkio. Horren ondorioz, gainerakoa zerga oinarritik kanpo geldituko da, hau da, ez da zergapetuko. Adibidez, bi urtetik gorako epean sortutako lan etekinetatik %60 integratuko dela esaten badugu, horrekin esan nahi da gainerako %40a ez dela aitortu behar. Aipatu portzentajeak honako hauek dira:

- a) Bi edo bost urtetik gorako epean lortutako etekinak

Lan etekinen sorreraldia bi urtetik gorakoa bada eta etekinak aldiari lortu ez badira, haien %60 integratuko da; aldiz, bost urtetik gorako epean sortu badira, %50 integratuko da.

Lanaren etekina bi edo bost urtetik gorako epean sortu dela eta aldiari lortu ez bada, baldin eta etekin hori langileei akzio edo partaidetzak erosteko aukera eskubidea ematearen ondorioz etorri bada eta eskubide hori, hurrenez hurren, bi edo bost urte igaro eta gero bakarrik era-

bili badaiteke emana izan den egunetik aurrera, eta gainera, erosteko aukerak urtero ematen ez badira.

**ERNE:** sorreraldia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

Sorreraldia	integrazio %
+2 urte	60
+5 urte	50

Bi urtetik gorako epean sortutako lan etekinak **zatika jasotzen direnean**, honako eragiketa hau egingo da: sorreraldiko urteak, datatik datara konputatuak, zati etekinak zatikatu diren zergaldien kopurua:

$$X = \frac{\text{Etekinak zenbat urtetan sortu diren}}{\text{Etekinak zatikatu diren zergaldien kopurua}}$$

- Emaizta bi urtetik gorakoa bada, %60ko portzentajea aplikatu da.
- Emaizta bost urtetik gorakoa bada, %50eko portzentajea aplikatu da.

Lanaren etekinak jarduten den entitatearen, sozietate taldeko edozein entitatearen, edo harekin lotutako dagoen beste edozein entitatearen AKZIOEN GAINEKO AUKERAK baliatzeagatik sortzen badira, %60ko edo %50eko portzentajeak aplikatzeko kontuan hartuko den etekinaren zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu 20.000,00 euroko zenbatekoa etekinaren sorreraldiko urte kopuruarekin biderkatuta ateratzen den emaitza. Limite hau bikoiztuko da akzioak. Muga hori bikoizta izango da, baldin eta akzioak 3 urtez mantentzen badira, erosteko aukera egin denetik, eta enpresako langile guztiek baldintza berdinetan jaso badute eskaintza. Muga hori aplikatu da lan etekin irregularretarako ezarrita dagoen muga orokorra eragotzi gabe.

Horretarako, ulertuko da lan etekin horien sorreraldia bi edo bost urtetik gorakoa dela eta ez direla aldizka edo noizean behin lortzen, baldin eta eskubide hori, hurrenez hurren, bi edo bost urte baino gehiago igaro ondoren erabiltzen bada, eskubidea eman den egunetik kontatzen hasita, eta, gainera, eskubideak ez badira urtero ematen.

Aipatu den zenbatekoa gainditzen bada, bere osoan konputatu da soberakina.

### Adibidea

Demagun enpresa batean lan egiten duzula eta zure urteko soldata 18.030,36 eurokoa dela. Aurten, gainera, 6.010,12 euroko saria jaso duzu azken lau urteotan lortu dituzun emaitzengatik.

Hona hemen aitortu behar dituzun etekin osoak:

Soldata	18.030,36 €
Saria (sariaren %60)	3.606,07 €
<b>Lanaren etekin osoak (18.030,36 € + 3.606,07 €)</b>	<b>21.636,43 €</b>

- **Langileei kaleratzeagatik ematen diren kalte-ordainen tratamendu fiskala**

- 1) **Kaleratze kolektiboengatik edo arrazoi objektiboetan oinarritutako kontratu amaierengatik langileek aldizka jasotzen dituzten lansari osagarriak**

<sup>25</sup> Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

Lan harremana iraungia duten langileek jasotzen dituzten zenbatekoak salbuetsita dauden kopuruak baino handiagoak direnean<sup>26</sup>, 100eko 70eko portzentajea aplikatuz sartuko dira lanaren etekin osoan, beti ere hurrengo paragrafoan adierazten diren baldintzak betetzen badira. Portzentaje hori aplikatu ahal izateko, diru kopuruek ezingo dute urtearen barruan gainditu lanbidearteko gutxieneko soldata (9.034,20 euro 2014ko ekitaldian) 2,5ekin biderkatu ondoren ateratzen den emaitza, hau da, ezingo dira 22.585,50 eurotik gorakoak izan. Muga horren gainetik dauden kopuruak (100eko 70ko portzentajea aplikatu aurretik hartzen da kontuan muga hori) oso-osorik integratuko dira zergaren zerga oinarrian.

Aurreko paragrafoan aipatu den 100eko 70eko portzentajea aplikatu ahal izateko, langileek jasotzen dituzten zenbatekoek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1) Diru kopuru horiek enplegua murrizteko espediente baten ondorioz jasotzea, espediente hori beti ere Langileen Estatutuak 51. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuta badago eta lan agintaritzaren eskudunak aurrez onartu badu, edo, bestela, lan harremana aipatu Estatu horren 52.c) artikuluan ezarritakoaren indarrez iraungitzea. Bi kasuetan, kaleratzea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik, antolaketa edo produkzio zioengatik, edo ezinbesteko arrazoiengatik egin beharko da.

Puntu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, herri administrazioetako giza baliabideei buruzko plan estrategikoak enplegua murrizteko espedienteekin parekatuko dira helburu berdinak dituztenean.

- 2) Enplegu Institutu Nazionaletik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik edo horien ordezkari entitateetatik jasotako zenbatekoen kopuru osagarriak izatea. Jasotako zenbatekoek tratamendu bera izango dute nahiz eta zergadunak, arrazoi bereziak direla-eta, inolako prestaziorik ez jaso erakunde horietatik ekitaldian zehar.
- 3) Diru kopuru horiek, aldi baterakoak nahiz biziartekoak izan, aldizka edo modu kapitalizatuan jasotzea, ordaintzailea edozein dela ere.

Diru kopuruak modu kapitalizatuan jasotzen badira, apartatu honetan aipatu den tratamendua aplikatuko da baldin eta zergadunarentzat aldekoagoa bada tratamendu hori lanaren errenta irregularretarako aurreikusitako erregimen orokorra baino.

- 2) **Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko hitzartutako aseguru kontratuak egin aurretik barruko fondoen kontura ordaindutako prestazioak, enplegua murrizteko espedienteetatik datozenak.**

Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko hitzartzen diren aseguru kontratuak enplegua murrizteko espedienteen prestazioak bideratzeko egiten badira, eta kontratu horien onuradunek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera jaso dituzten diru kopuruei –kontratua egin aurretik barruko fondoen kontura ordaindutakoei - Errenta Zergari buruzko Foru Arauak 19.2 artikuluan aurreikusitako integrazio portzentajeak aplikagarri bazitzaizkien, integrazio portzentaje horien aplikazioarekin jarraituko dute, eta, ondorio horietarako, kontratua egiteak ez du prestazio horien sorreraldia kalkulatzeko era aldatuko.

## b) Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak

Lanaren etekinak denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat kalifikatzen direnean, %50 integratuko da.

Lanaren honako etekin hauek bakarrik hartzen dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat, beti ere zergaldi bakar bati egotzen bazaizkio:

1. Beste lantoki batera aldatzeagatik enplegatuei ordaindutako zenbatekoak, beti ere dietei buruzko apartatuan aurreikusi diren kopuruak gainditzen badituzte<sup>27</sup>.
2. Gizarte Segurantzaren edo klase pasiboan erregimen publikoetatik jasotzen diren kalte-ordainak, eta umezurtzen eskolek eta antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak, prezio bakarrean ordaindu direnean eta elbarritasunik eragiten ez duten lesioengatik emanda daudenean.
3. Elbarritasunik eragiten ez duten lesioengatik edo baliatzintasun iraunkorragatik, bere maila guztietan, jasotako prestazioak enpresek edo ente publikoek ordaintzen dituztenean.
4. Langile edo funtzionarioen heriotzagatik eta ehorzketa gastuengatik ematen diren prestazioak, hala izaera publikoak nola umerzurtzen eskolek, antzeko erakundeek, enpresek eta ente publikoek ordaindutakoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauan ezarritako muga salbuetsia gainditzen dutenean.
5. Soldata osagarriak, pentsioak edo iraupen mugagabeko urtealdiak konpentsatu edo zuzentzeko, nahiz lan baldintzak aldatzeagatik ordaintzen diren zenbatekoak.
6. Lan harremana elkarren arteko adostasunez indargabetzeagatik enpresak langileari ordaindutako zenbatekoak. Ondorio horietarako, harreman estatutarioak eta bazkide langileak eta lan bazkideak kooperatibekin lotzen dituztenak lan harremanekin parekatzen dira. Hala ere, letra honetan aipatutako kontzeptuagatik jasotzen diren lehen 60.000,00 euroei %40ko integrazio portzentajea aplikatuko zaie.
7. Zerga honetan salbuetsita ez dauden literatur, arte edo zientzia sariak, derrigorrez aitortu behar direnean<sup>28</sup>.

Ondorio horietarako, jabetza intelektual edo industriaren eskubideak lagatzeagatik lortutako kontraprestazio ekonomikoak, edo horien ordezkari gisa ematen direnak, ez dira saritzat hartuko.

%50eko integrazio portzentajea aplikatuko zaie, baita ere, euren jardueraren zirkunstantzia objektiboak direla-eta denbora tarte laburretan etekin mota hori lortzen duten zergadunek jasotako etekin handiei, baldin eta denbora tarte hori igarota ezin badute etekin gehiago lortu aipatu jarduera dela-eta. Paragrafo honetan xedatutakoa Diputatuen Kontseiluak erabakitako eran eta baldintzen arabera aplikatuko da.

## A adibidea

Zure enpresak beste udalerriri batera aldatu zuen zure lanpostua. Horren ondorioz, bizilekuz ere aldatu behar izan zenuen eta, horregatik, 3.005,06 euroko konpentsazioa eman zizuten. Bidaia egiteko zure ibilgailua erabili zenuen, kanpoan lo egin behar izan gabe.

<sup>26</sup> Ikus 1.7 apartatua, 1. kapituluaren barruan, "Sarrera" izenekoan. Aitortu behar ez diren errentak azaltzen dira bertan.

<sup>27</sup> Ikus kapitulu honen barruan ageri den 2.2 apartatua, joan-etorriko dietak eta bidai gastuak aztertzen dituena.

<sup>28</sup> Ikus 1.7 apartatua 1. kapituluaren barruan, "Sarrera" izenekoan. Aitortu behar ez diren errentak azaltzen dira bertan.

Honako frogagiriak dauzkazu:

Mudantza enpresaren faktura	1.202,02 €
Egindako kilometroak	600 km

Honako zenbatekoak geratzen dira zergatik salbuetsita:

Lokomozio gastuak: 600 km x 0,29 €.	174,00 €
Mantenu gastuak, gaua eman gabe	26,67 €
Etxe aldaketaren faktura	1.202,02 €
<b>Salbuesten diren sarrerak, guztira</b>	<b>1.402,69 €</b>

Aitortu behar diren sarrerak zeintzuk diren jakiteko, jasotako zenbatekotik guztira salbuesten diren sarrerak kenduko ditugu:

Jasotako zenbatekoa	+3.005,06 €
Gastuak guztira	- 1.402,69 €
Zergapetzen diren sarrerak	1.602,37 €

Zergapetzen diren sarreretatik %50 bakarrik aitortu beharko duzu; beste %50a ez duzu aitortu beharko:

Zergapetzen diren sarrerak	1.602,37 €
Integrazio portzentajea	%50
Lanaren etekin osoak	801,19 €

## B adibidea

Eman demagun zeure enpresarekin ados jarri zarela indarrean duzun lan harremana amaitzeko. Hori dela-eta, enpresak 120.202,42 euroko kalte-ordaina eman dizu kapital moduan.

Kalte-ordaina	120.000,00 €
Lehen 60.000,00 euro x %40	24.000,00 €
Gainerakoa (120.000,00 - 60.000,00 ) 60.000,00 x %50	30.000,00 €
Lanaren etekin osoak	54.000,00 €

## GARRANTZITSUA

### ERRENTA IRREGULARRETARAKO BATERAKO MUGA

1. MUGA: %100etik beherako integrazio portzentajeak aplikatu ahal izateko, hurrengo etekinen kasuan urteko zenbatekoa ezin da izan 300.000 eurokoa baino handiagoa:

- Bi edo bost urtetik gorako epean lortutako etekinak
- Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak
- Akzioen gaineko aukerak baliatzeagatik lortutakoak

Zenbateko horren gaineko soberakina 100eko 100ean integratuko da. Adierazitako muga konputatzeko, lehen-lehenik kontuan hartuko dira integrazio portzentajerik txikiena aplikagarri duten kopuruak.

GUZTIAREKIN ERE, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratuen kasuan, non %50eko portzentajea aplikatzen baita zergadunek lortutako etekin handien gainean, irregular

nabarmenean artean sartzen diren etekinak direlak, %50eko portzentajea aplikatuko da haien zenbatekoa zeinahi dela ere.

2. MUGA: 100eko 100etik beherako integrazio portzentajeak aplikatzeko aintzat hartuko diren etekinak, Borondatezko gizarte aurreikuspenekoak, Pentsio planetakoak, Gizarte aurreikuspeneko mutualitateetakoak, ea... ezingo dira izan urtean 300.000 euro baino handiagoak. Zenbateko horren gaineko soberakina 100eko 100ean integratuko da.

### c) Gizarte Segurantzaren prestazioak

Gizarte Segurantzaren prestazioak kapital moduan jasotzen direnean, haien %60 integratuko da lehen ekarpenetik bi urte baino gehiago igaro badira. Prestazioak elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik jasotzen badira, bi urteko epea ez da exijituko.

Gizarte Segurantzaren edo klase pasiboen erregimen publikoek ordaindutako kalte-ordainak eta umezurtzen eskolek eta antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak, prezio bakaurrean ordainduta badaude edo elbarritasunik eragiten ez duten lesioengatik emandakoak badira, %50ean integratuko dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak izateagatik, zergaldi bakar bati egozten zaizkionean<sup>29</sup>.

### d) Funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorretatik, umezurtzen eskoletatik eta antzeko erakundeetatik jasotzen diren prestazioak

Ondoko prestazioak kapital moduan jasotzen badira, %60 integratuko da:

- Kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehen prestazioa, betiere lehen ekarpena egin denetik bi urte baino gehiago igaro badira. Prestazioak elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik jasotzen badira, bi urteko epea ez da exijituko. Kontingentzia beragatik ezingo da murrizpen hau berriro aplikatu.
- 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen, kontingentzia beragatik kapital moduko prestazioak jaso direnean bakarrik, %60ko integrazio portzentajea berriro aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da aurreko prestazioaz geroztik bost urte igarotzea eta ordaindutako ekarpenen aldizkakotasuna eta erregulartasuna nahikoak izatea. Egindako ekarpenek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa izango dute batez besteko iraupenaldia handiagoa denean lehen ekarpena egin denetik prestazioa jaso arte igarotako urte kopuruaren erdia baino. Ekarpenei batez besteko iraupenaldia kalkulatzeko, ekarpen bakoitza bere iraupenaren urte kopuruarekin biderkatu behar da lehenik eta, guztien batura egin ondoren, emaitza ordaindutako ekarpenen batura osoarekin zatitu behar da gero.

Umezurtzen eskolek eta antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak, kopuru bakarrean ordaintzen direnean, eta elbarritasunik eragin ez duten lesioen kasuetatik datozenak zergaldi bakar bati egozten zaizkionean, %50ean integratuko dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak izateagatik, betiere esandako kalte-ordain eta prestazio horiek ez badaude salbuetsita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauak xedatutakoaren arabera<sup>30</sup>.

### e) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik, pentsio planetatik, aurreikuspen plan aseguruetatik, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetatik eta mendekotasun aseguruetatik jasotzen diren prestazioak.

<sup>29</sup> Ikus 2.4.b) apartatua.

<sup>30</sup> Ikus 2.4.b) apartatua.



Ondoko prestazioak kapital moduan jasotzen badira, %60 integratuko dira:

- Kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehen prestazioa, betiere lehen ekarpena egin denetik bi urte baino gehiago igaro badira. Prestazioak elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik jasotzen badira, bi urteko epea ez da exijituko. Kontingentzia beragatik ezingo da murrizpen hau berriro aplikatu.
- 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen, kontingentzia beragatik kapital moduko prestazioak jaso direnean bakarrik, %60ko integrazio portzentajea berriro aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da aurreko prestazioaz geroztik bost urte igarotzea eta ordaindutako ekarpenen aldizkakotasuna eta erregularitasuna nahikoak izatea. Egindako ekarpenek aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoak izango dute batez besteko iraupenaldia handiagoa denean lehen ekarpena egin denetik prestazioa jaso arte igarotako urte kopuruaren erdia baino. Ekarpenei batez besteko iraupenaldia kalkulatzeko, ekarpen bakoitza bere iraupenaren urte kopuruarekin biderkatu behar da lehenik eta, guztien batura egin ondoren, emaitza ordaindutako ekarpenen batura osoarekin zatitu behar da gero.

Horretarako, lehendabiziko prestaziotzat hartuko da kapital moduan ekitaldi bakarrean kontingentzia bakoitza gertatzeagatik jasotzen diren kopuruaren zenbateko osoa. Aurreko paragrafoan aipatzen diren ondoko prestazioei erregela bera aplikatuko zaie.

Apartatu honetan finkatutako tratamendua gaixotasun larriagatik eta iraupen luzeko langabeziagatik jasotzen diren zenbaterako ere aplikatuko zaie.

%60ko portzentajea honako hauei ere aplikatuko zaie, alegia, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak<sup>31</sup> 8.8 artikuluan aipatzen dituen kontingentziekin edo bertan aurreikusten diren egoerekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik jasotzen den lehen kopuruari, eta orobat, aurreko ordainketa jaso denetik bost urte behin igarota arrazoi berberengatik elkarren segidan jasotzen diren kopuruari, baldin eta ordaindutako ekarpenek aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoak gordetzen badute. Egindako ekarpenek aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoak dutela ulertuko da batez besteko iraupenaldia lehen ekarpena egin denetik prestazioa jaso den arte igarotako urte kopuruaren erdia baino handiagoa denean. Ekarpenei batez besteko iraupenaldia kalkulatzeko, ekarpen bakoitza bere iraupenaren urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik eta, guztien batura egin ondoren, emaitza ordaindutako ekarpenen batura osoarekin zatituko da. Horretarako, jasotako lehen kopurutzat hartuko da ekitaldi bakar batean kapital moduan jasotako kopuruaren zenbateko osoa. Paragrafo honetan aipatutako kopuruaren ordainketa jarraituei erregela bera aplikatuko zaie.

Pertsona desgaituek errenta moduan lortutako prestazioak lanbidearteko gutxieneko soldata hiru halakoraino murriztuko dira gizarte aurreikuspeneko sistemetan haien alde egindako ekarpenengatik, baldin eta beren **minusbaliotasun fisiko edo zentzumenezkoa %65ekoa edo handiagoa bada, %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun psikikoa badute edo, bestela, judizialki aitortutako ezgaitasun bat badute Kode Zibilean jasotako kausak direla medio, maila edozein dela ere.**

31 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

## Adibidea

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate batean dituzun eskubide kontsolidatuak berreskuratzea erabaki duzu. 60.000,00 eurokoak dira guztira. 10 urte igaro dira lehen ekarpena egin zenuenetik.

48.000,00 euroko ekarpenak egin dituzu orotara, eta Zergaren zerga oinarrian 30.000,00 euroko murrizpenak egin dira.

Pentsio plan bat ireki eta handik urtebetetera, zure ezkontidea elbarri geratu da, eta 12.000,00 euroko pentsioa jaso du.

Zure etekin osoa

60.000,00 €-ren %60 = 36.000,00 €
-----------------------------------

Zure ezkontidearen etekin osoa

12.000,00 €-ren %60 = 7.200,00 €
----------------------------------

- f) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateen prestazioak

Ondoko prestazioak kapital moduan jasotzen badira, %60 integratuko dira:

- Kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehen prestazioa, betiere lehen ekarpena egin denetik bi urte baino gehiago igaro badira. Prestazioak elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik jasotzen badira, bi urteko epea ez da exijituko. Kontingentzia beragatik ezingo da murrizpen hau berriro aplikatu.
- 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen, kontingentzia beragatik kapital moduko prestazioak jaso direnean bakarrik, %60ko integrazio portzentajea berriro aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da aurreko prestazioaz geroztik bost urte igarotzea eta ordaindutako ekarpenen aldizkakotasuna eta erregularitasuna nahikoak izatea. Egindako ekarpenek aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoak izango dute batez besteko iraupenaldia handiagoa denean lehen ekarpena egin denetik prestazioa jaso arte igarotako urte kopuruaren erdia baino. Ekarpenei batez besteko iraupenaldia kalkulatzeko, ekarpen bakoitza bere iraupenaren urte kopuruarekin biderkatu behar da lehenik eta, guztien batura egin ondoren, emaitza ordaindutako ekarpenen batura osoarekin zatitu behar da gero.

Pertsona desgaituek errenta moduan lortutako prestazioak lanbidearteko gutxieneko soldata hiru halakoraino salbuetsiko dira (27.102,60 euroraino gehienez) gizarte aurreikuspeneko sistemetan haien alde egindako ekarpenengatik, baldin eta beren **minusbaliotasun fisiko edo zentzumenezkoa %65ekoa edo handiagoa bada, %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun psikikoa badute edo, bestela, judizialki aitortutako ezgaitasun bat badute Kode Zibilean jasotako kausak direla medio, maila edozein dela ere.**

**Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei aplikatzen zaien erregimen iragankorra:**

- Jubilazio eta elbarritasun prestazioak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru kontratuetatik badatoz eta horiei dagozkien ekarpenak, 1999ko urtarrilaren 1 baino lehen egindakoak, gutxienez behin murriztu badira zerga oinarrian (zati batean behintzat) lan etekin gisa integratu beharko dira zergaren zerga oinarrian.
- Integrazio hori egingo da baldin eta jasotako zenbaterako Zergaren araudiaren arabera zerga oinarrian murriztu ezin izan diren eta, beraz, lehendik tributatu duten ekarpenak baino handiagoak badira.
- Zerga oinarrian murriztu ezin izan diren ekarpenen zenbatekoa ezin bada frogatu, jubilazio edo elbarritasunagatik jasotako prestazioen %75 integratuko da.



**g) Aseguru kolektiboen kontratuak:**

- 1. Enpresarien ekarpenak** prestazioak jasotzen dituzten pertsonen lan etekin gisa **egotzi zaizkienean:**

Erretiroagatik jasotzen diren prestazioak

Erretiro prestazioak kapital moduan jasotzen direnean, eta prestazio horiek enpresek pentsio konpromisoak betetzeko izenpetutako aseguru kolektiboen kontratuetatik datozenean (beti ere Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak lehen xedapen gehigarrian eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera<sup>32</sup>), integratu behar den etekinen portzentajea prima ordaindu denetik kapitala jaso arte igarotako denbora kontuan hartuz kalkulatu da prestazio horien zenbatekoak fiskalki egotzi diren kontribuzioak eta langileak zuzenean egindako ekarpenak gaintzen dituzten:

Ordaintzen denetik kobratu arte igarotako denbora	Integratu beharreko kapitalaren %
2 urte edo gutxiago	100
2 urte baino gehiago	60
5 urte baino gehiago	25
8 urte baino gehiago	25

\* **ERNE:** %25eko portzentaje hori kontratu horietatik datorren etekin osoari aplikatuko zaio baldin eta lehen prima ordaindu denetik 8 urte baino gehiago igaro badira, eta kontratuak iraun duen bitartean ordaindu diren primen aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoa gorde badute. 1994ko abenduaren 31tik aurrera egindako aseguru kontratuei baino ez zaie aplikatuko portzentaje hori.

**Noiz gordetzen dute aldizkakotasun eta irregularitasun nahikoa?** Lehen prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro eta primen batez besteko iraupenaldia lau urtetik gorakoa izan denean.

**Primen batez besteko iraupenaldia** kalkulatzeko, prima bakoitza zein bere iraupeneko urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik, eta guztien batura egin ondoren ( $\Sigma$ ), emaitza ordaindutako primen batura osoarekin zatituko da.

Primen batez besteko = iraupenaldia	$\frac{\Sigma (\text{prima} \times \text{iraupeneko urteak})}{\text{Ordaindutako prima guztien batura}}$
-------------------------------------	--

Elbarritasunagatik jasotzen diren prestazioak

Elbarritasun prestazioak kapital moduan jasotzen badira, eta prestazio horiek enpresek pentsio konpromisoak betetzeko izenpetutako aseguru kolektiboen kontratuetatik badatoz (beti ere Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak lehen xedapen gehigarrian eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera<sup>33</sup>), etekinen portzentaje bat integratuko da prestazioen zenbatekoak fiskalki egotzi diren kontribuzioak eta langileak zuzenean egindako ekarpenak gaintzen dituzten:

- Elbarritasun prestazioak 8 urtetik gorako antzinatasunez hitzartutako aseguru kontratuen ondorio direnean,

32 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

33 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

etekinen %25 integratuko da ordaindutako primen aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoa gordetzen badute.

**Noiz gordetzen dute aldizkakotasun eta irregularitasun nahikoa?** Lehen prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago behin igarota, primen batez besteko iraupenaldia lau urtekoa baino handiagoa izan denean.

**Primen batez besteko iraupenaldia** kalkulatzeko, prima bakoitza zein bere iraupeneko urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik, eta guztien batura egin ondoren ( $\Sigma$ ), emaitza ordaindutako primen batura osoarekin zatituko da.

Primen batez besteko = iraupenaldia	$\frac{\Sigma (\text{prima} \times \text{iraupeneko urteak})}{\text{Ordaindutako prima guztien batura}}$
-------------------------------------	--

- Edozein lanetarako erabateko ezintasun iraunkorragatik eta ezintasun handiagatik ematen diren prestazioak pentsio plan eta fondoan araudiari jarraiki jasotzen badira, etekinen %25 integratuko da. 1994ko abenduaren 31tik aurrera egindako aseguru kontratuei baino ez zaie aplikatuko portzentaje hori.
- Aurreko baldintzak betetzen ez direnean, %60 integratuko da.

Era berean, tratamendu hori kapital moduan jasotako elbarritasun prestazioei aplikatuko zaie, arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuetatik eratorritakoak direnean.

**Adibidea**

Erretiroa hartu duen langile batek 8.250,00 euro jaso ditu aseguru kolektiboko kontratu batetik. Aseguru horretan enpresak hartutako pentsio konpromisoak sartzan dira. Enpresariak 1.000,00 euroko primak ordaindu ditu 7 urtez, langileari fiskalki egotzi zaizkionak.

Aseguru entitateak luzatu duen ziurtagiriaren arabera, prima bakoitzagatik honako zenbatekoak ordaindu dira:

Urtea	Primak	Prestazioa
1	1.000,00 €	1.312,50 €
2	1.000,00 €	1.267,88 €
3	1.000,00 €	1.223,25 €
4	1.000,00 €	1.178,63 €
5	1.000,00 €	1.133,88 €
6	1.000,00 €	1.089,25 €
7	1.000,00 €	1.044,63 €
<b>Guztira</b>	<b>7.000,00 €</b>	<b>8.250,02 €</b>

Lanaren etekin osoengatik 600,44 euro integratuko dira. Zerga oinarrian integratu behar diren primen errentagarritasunak batuz lortu da kopuru hori.

Urtea	Prima	Prestazioa	Primen errentagarritasuna	Urteak	Integratu beharreko %	Etekin osoa
1	1.000,00 €	1.312,50 €	312,50 €	7	25	78,13 €
2	1.000,00 €	1.267,88 €	267,88 €	6	25	66,97 €
3	1.000,00 €	1.223,25 €	223,25 €	5	60	133,95 €

4	1.000,00 €	1.178,63 €	178,63 €	4	60	107,18 €
5	1.000,00 €	1.133,88 €	133,88 €	3	60	80,33 €
6	1.000,00 €	1.089,25 €	89,25 €	2	100	89,25 €
7	1.000,00 €	1.044,63 €	44,63 €	1	100	44,63 €
<b>Guztira</b>	<b>7.000,00 €</b>	<b>8.250,02 €</b>	<b>1.250,02 €</b>			<b>600,44 €</b>

## 2. **Enpresarien ekarpenak** prestazioak jasotzen dituzten pertsonen lan etekin gisa **egotzi ez zaizkienean:**

### Erretiro prestazioak

Erretiro prestazioak kapital moduan jasotzen direnean, eta prestazio horiek enpresek pentsio konpromisoak betetzeko izenpetutako aseguru kolektiboen kontratuetatik datozenean (beti ere Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak lehen xedapen gehigarrian eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera<sup>34</sup>), enpresarien kontribuzioak egotzi ez direnez integrazio portzentajeak honela aplikatuko dira: langileak zuzenean egin dituen ekarpenak baldin badaude, integrazio portzentajeak ekarpen horiek gainditzen dituen zenbatekoari aplikatuko zaizkio, eta langilearen ekarpenik ez badago, jasotako prestazioaren zenbateko osoari. Etekinen integrazio portzentajeak aldatu egiten dira prima ordaindu denetik kapital jaso den arte igaro den denboraren arabera:

Ordaintzen denetik kobratu arte igarotako denbora	Integratu beharreko kapitalaren %
2 urte edo gutxiago	100
2 urte baino gehiago	60

### Elbarritasunagatik jasotako prestazioak

Elbarritasun prestazioak kapital moduan jasotzen direnean, eta prestazio horiek enpresek pentsio konpromisoak betetzeko izenpetutako aseguru kolektiboen kontratuetatik datozenean (beti ere Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak lehen xedapen gehigarrian eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera<sup>35</sup>), enpresarien kontribuzioak egotzi ez direnez integrazio portzentajeak honela aplikatuko dira: langileak zuzenean egin dituen ekarpenak baldin badaude, integrazio portzentajeak ekarpen horiek gainditzen dituen zenbatekoari aplikatuko zaizkio, eta langilearen ekarpenik ez badago, jasotako prestazioaren zenbateko osoari. Etekinen %60ko integrazio portzentajea aplikatuko zaie, elbarritasun maila edozein dela ere.

## 3. **Erreskate eskubidea**, enpresek Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten **aseguru kolektiboko kontratuetan, aseguru kolektiboko beste kontratu batean integratzeko:**

Ez da lotuta egongo kasu bakoitzean egokitzen den baliabide ekonomikoaren titularraren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, ondorengo kasuetan, Enpresek Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002

Errege Dekretu Legegilearen lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan erreskate eskubidea erabiltzearen ondorioz agertzen den errenta:

- Polizan bideratutako konpromisoak osorik edo zati batean sartzean aipatu lehen xedapen gehigarrian jasotako beharkizunak betetzen dituen beste aseguru kontratu batean.
- Lan harremana amaitzen denean jatorrizko aseguru kontratuaren arabera langileari dagozkion eskubideak aseguru kolektiboko beste kontratu batean sartzean.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako kasuek ez dute aldatuko primen izaera enpresak zerga arloan egotzeari dagokionez, ez eta jatorrizko aseguru kontratuan ordaindutako primen antzinatearen konputua ere. Dena dela, aurreko b) letretan jasotako kasuan, primak ez baziren egotzi, enpresak horien kenkaria egin ahal izango du mobilizazio hori dela eta.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotu gabe geratuko da Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegilearen lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuen mozkinetan parte hartzearen ondorioz agertzen den errenta ere, mozkinetako partaidetza hori kontratu horietan aseguratutako prestazioak gehitzeko erabiltzen denean.
- 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako bizitza aseguru kolektiboak**, enplegatuei primak egotzi gabe lan etekinak sortzen dituztenak.

2003ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako aseguru kontratuetan prima guztiak 2003ko martxoaren 23a iritsi aurretik ordaindu badira langileei gauzako lan etekin gisa fiskalki egotzi gabe, aplikaziozkoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak hamaseigarren xedapen iragankorrean jasotakoa.

**ERNE:** aurreko c), d), e), f) eta g) letretan aipatu diren prestazioak **oso-osorik** konputatuko dira **errenta moduan jasotzen direnean**.

Prestazio mistoen kasuan, hau da, edozein motatako errentak kapital moduan jasotako kobrantza bakarrek errentekin konbinatzen direnean, **aurreko c), d), e), f) eta g) letretan aipatu diren integrazio portzentajeak kapital moduan kobratutakoari bakarrik aplikatuko zaizkio**. Bereziki, prestazioak errenta moduan behin kobratzen hasi eta errenta hori modu aurreratuan berreskuratzen bada, prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratzean zeukan antzinatearen arabera aplikatuko zaizkio lortutako etekinari behar diren integrazio portzentajeak.

## 2.5 Zein gastu dira kengarriak?

Zergadunak honako gastu hauek bakarrik kendu ahal izango ditu:

- Kotizazioak:
  - Gizarte Segurantzari** egindako kotizazioak.
  - Funtzionarioen **derrigorrezko mutualitate orokorrei** egindako kotizazioak.
  - Eskubide pasiboen** murrizketak eta **umezurtzen eskolei** edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak.
  - Zergadunek **Gizarte Segurantzaren ordezkotitate edo erakundeei** ordaindutako zenbatekoak (be-

34 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

35 Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

tiere indarrean dagoen araudiaren arabera Gizarte Segurantzari dagozkion zenbait kontingentzia prestatzen dituzten entitateak badira).

**ERNE:** kengarriak al dira autonomoen erregimenean egiten diren kotizazioak? Ikusi behar da egindako jarduerarekin lan errentak edo jarduera ekonomikoen errentak lortzen diren:

- **Jarduera ekonomikoak:** ez dira kengarriak (beren kontura diharduten langileen kasua da).
  - **Lan errentak:** bai, kengarriak dira (sozietateetako bazkide administratzaileen kasua da).
2. Kargu politikoek beren erakunde politikoari derrigorrez ordaintzen dizkioten zenbatekoak. Kargu horiek izan daitezke:
- **Kargu hautetsiak.**
  - **Izendapen libreko** kargu politikoak. Beharrezko da kargu hori betetzea erakunde politikoak horretarako izendatu dituelako.

Etekin horiek zergadunaren errenta iturri nagusia badira, aipatu lana betez lortutako etekin osoen %25 kenduko da gehienez.

Dagokion eredu informatiboan aipatzen diren zergadunek bakarrik aplikatu dezakete bigarren puntu honetan esandakoa.

Gastu gisa kentzen diren zenbatekoak ez dira sartuko alderdi politikoaren aldeko kuoten eta ekarpenen kenkariaren oinarrian<sup>36</sup>.

## 2.6 Zein hobari aplika daitezke?

Etekin osoen eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboak honako hobariak izango ditu, hurrengo taularen arabera:

Etekin osoen eta gastuen arteko diferentzia	Hobaria
7.500,00 euroraino	4.650,00 €
7.500,01 eta 15.000,00 euro bitartean	4.650,00 € - [0,22 x (Diferentzia - 7.500,00 €)]
15.000,00 euro baino gehiago	3.000,00 €
7.500,00 eurotik gorako beste errenta iturri batzuk	3.000,00 €

Azalpena:

- Diferentzia 7.500,00 eurokoa edo txikiagoa bada, 4.650,00 euroko hobaria eragingo da.
- Diferentzia 7.500,01 eta 15.000,00 euro bitartekoa bada, honako hobaria aplikatuko da: 4.650,00 euro ken aipatu diferentziari 7.500,00 euro kendu ondoren ateratzen den emaitza 0,22rekin biderkatuz ateratzen dena.

$$4.650,00 \text{ €} - \{0,22 \times [(\text{etekin osoak} - \text{gastu kengarriak}) - 7.500,00 \text{ €}]\}$$

- Diferentzia 15.000,00 eurotik gorakoa bada, 3.000,00 euroko hobaria aplikatuko da.
- Zerga oinarrian 7.500,00 eurotik gorako errentak konputatzen direnean eta horiek lan errentak ez direnean, 3.000,00 euroko hobaria eragingo da.

**Zer gertatzen da aktiboan dauden langile desgaituekin?** Aktiboan dauden langileak desgaituak badira (ez pentsiodunak), honela gehitu ahal izango dituzte lehen aipatu diren hobariak:

- **%100, minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean.**
- **%250, minusbaliotasun maila %33 eta %65 bitartean** dagoenean eta mugikortasuna mugatua dutenean. Mugikortasun mugatua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortu dituztenean. Baita langile aktibo desgaituen minusbaliotasun maila %65ekoa edo handiagoa denean.

Elbarritasuna judizialki eta Kode Zibilean ezarritakoaren arabera aitortua duten langile desgaituek ere %250 gehitu ahal izango dute hobaria, beren minusbaliotasuna %65era iritsi ez arren.

**ERNE:** hobari hau aplikatzearen ondorioz ateratzen den lan etekin garbia ezingo da negatiboa izan.

Baterako tributazioan, lan etekinak pertsona batek baino gehiagok jasotzen dituztenean, hobaria lan etekin guztiak konputatzen hartuz aplikatuko da, jasotzaile kopurua edozein dela ere.

## 2.7 Nola kalkulatzen da etekin garbia?

Lanaren etekin garbia kalkulatzeko, etekin osoetatik gastu kengarriak eta hobariak kendu behar dira.

$$\text{Etekin garbia} = \text{Etekin osoak} - (\text{Gastu kengarriak} + \text{Hobariak})$$

### Adibidea

Langile batek 5 urte zeramatzan lanean enpresa batean, baina 2014ko martxoaren lehen egunetik geratu da. Urte horretako lehen bi hilabeteetako soldata 3.606,07 eurokoa izan da. 42.070,85 euroko kalte-ordaina ere jaso du; hala ere, zati bat, 13.522,76 euro alegia, ez du aitortu behar (salbuetsita dago) bidezgabe kaleratzea izan delako. Gizarte Segurantzaren kotizazioa 601,01 eurokoa izan da.

Soldata (urtarrila eta otsaila)	3.606,07 €
Kalte-ordaina	42.070,85 €
Salbuespena	- 13.522,76 €
Zergapeturiko kalte-ordaina (42.070,85 € - 13.522,76 €)	28.548,09 €
Integrazio % (2 urtetik gorako epean sortutako errenta irregularragatik)	60%
Zerga oinarrian sartu beharreko kalte-ordaina (28.548,09 euroren %60)	17.128,85 €
<b>Etekin osoak, guztira (3.606,07 € + 17.128,85 €)</b>	<b>20.734,92 €</b>
Gastu kengarriak (Gizarte Segurantzaren)	- 601,01 €
Hobaria	- 3.000,00 €
<b>Etekin garbia, guztira [20.734,92 € - (601,01 € + 3.000,00 €)]</b>	<b>17.133,91 €</b>

<sup>36</sup> Ikus 12. kapituluaren barruan, "Kuota likidoa eta kenkariak" izenekoan, 12.8.2 apartatua: "Kenkaria langileen sindikatuari ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoaren aldeko kuota eta ekarpenengatik".

## 2.8 Nori egozten zaizkio lanaren etekinak?

Etekinak jasotzeko eskubidea sortu duenari egotziko zaizkio bakar-bakarrik **lanaren etekinak**.

Alabaina, erregimen publikoetatik jasotzen diren **pentsio eta hartzeko pasiboak**, eta derrigorrezko mutualitate orokorretatik, pentsio planetatik, 2003/41/EB Arzteztarauan erregulatutako pentsio planetatik, aurreikuspen plan aseguratuetatik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik, gizarte aurreikuspeneko mutualitateetatik, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetatik eta mendekotasun aseguruetatik lortzen diren prestazioak, horien onuradun diren pertsona fisikoak egotziko zaizkie.

## 2.9 Noiz egozten dira lanaren etekinak?

Oro har, lanaren etekinak jasotzaileak exijitzen dituen zergaldiari egotziko zaizkio.

Hala ere, kasu jakin batzuetan arau bereziak aplikatzen dira.

- a) Errenta ez bada bere osoan edo zati batean ordaindu jasotzeko eskubidea edo kopurua **erabaki judizialaren zain** dagoelako, ordaindu ez diren kopuruak erabaki judiziala irmo bihurtzen den zergaldiari egotziko zaizkio.
- b) Gertatzen bada, **zergadunarekin zer ikusirik ez duten arrazoi justifikatuengatik**, lanaren etekinak ez direla jasotzen exijigarri diren zergaldietan, beste batzuetan baizik, etekinak hauei egotziko zaizkie. Horretarako, aitorten likidazio osagarri bat egingo da, baina zigorrik, berandutza interesik eta inolako errekar gurik ezarri gabe. Aitorten hori aurkezteko epea aipaturiko etekinak jasotzen diren egunean hasi eta zerga hau aitortzeko hurrengo epearen amaieran bukatuko da.
  - a) letran aurreikusitako zirkunstantziak ematen direnean, etekinak exijigarriak izango dira erabaki judiziala irmo bihurtzen den zergaldian.
- c) **Langabezi prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean** jaso bada lan araudian aurreikusitakoaren arabera, baina zergatik salbuesteko baldintzak betetzen ez baditu<sup>37</sup>, ordainketa modalitate bakarrean egin izan ez balitz prestazioa jasotzeko eskubidea emango zuten zergaldi guztietan egotzi ahal izango da prestazioa. Egozpena proportzionalki egingo da, hau da, ordainketa bakarra egin izan ez balitz zergaldi bakoitzean zenbat denboran izango zen prestazioa jasotzeko eskubidea kontuan hartuz.
- d) **Zenbatetsitako errentak** produzituztat jotzen diren zergaldiari egotziko zaizkio.

- e) Zergadunak **atzerriara aldatu badu bere egoitza** eta, horregatik, zergadun izateari utzi badio, egotzeko dauzkan errenta guztiak egoitza aldatu aurreko tokian zerga honengatik aitortu behar zuen azken zergaldiko zerga oinarrian sartuko dira, erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan. Beharrezkoa izanez gero, aitorten likidazio osagarri bat egingo da, baina zigorrik, berandutza interesik edo inolako errekar gurik gabe.
- f) **Zergaduna hiltzen bada**, egotzi gabe gelditu diren errenta guztiak aitortu behar den azken zergaldiko zerga oinarrian integratuko dira.

## 2.10 Nola baloratzen dira zenbatetsitako etekinak?

Lanaren etekinak ordainduak izan direla jotzen da.

Errenta zenbatetsien balorazioa **merkatuko ohiko balioaren** arabera egingo da. Merkatuko ohiko balioztat subjektu inpendienteen artean adostuko litzatekeen kontraprestazioa izango da.

Nolanahi ere, frogak onartzen dira egindako ordainketa balio hori baino txikiagoa izan dela edo ordainketarik ez dela egon erakusteko. Froga bideak zuzenbidean onartzen direnak dira.

## 2.11 Eragiketa lotuak

Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak<sup>38</sup> aurreikusitako eran.

Pertsona edo entitate lotuak izan daitezke:

- **Entitate** bat eta bertako **bazkide** edo **partaide**, baldin eta azken honek duen portzentajea oro har %5ekoa edo handiagoa bada, edo, bestela, %1eko portzentajea duenean sozietatearen baloreak merkatu arautu batean kotizatuz gero.
- **Entitate** bat eta bertako **kontseilari** edo **administratzaileak**.
- **Entitate** bat eta bertako **bazkide**, **partaide**, **kontseilari** edo **administratzaileen ezkontidea**, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako **izatezko bikote-laguna** edo **ahaidetasun harreman bategatik lotutako pertsona**. Harreman hori zuzeneko zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.
- **Aurreko kasuetako** edozein, **talde bereko entitateekin**.

<sup>37</sup> Ikus 1.7 apartatua 1. kapituluaren barruan, "Sarrera" izenekoan. Aitortu behar ez diren errentak azaltzen dira bertan.

<sup>38</sup> Ikus Sozietateen gaineko Zergaren araudia, eragiketa lotuak baloratzeko erregelak jasotzen dituenak.

